

Gaizka Fernández Soldevilla argitaratu berri duen 'Héroes, heterodoxos y traidores'.

Historia de Euskadiko Ezkerra' liburuak nire lehenengo militantzia urteak ekarri dizkit gogora.

Gazteak ginen. Uste genuen baino askoz gazteagoak. Bizitzaren udaberrian beste udaberri bikiakin bat eskaintzen zigun historiak: demokrazia. Egia esan, horren kontzeptu potoloaren mugaz eta ezaugarriez ez ginen jabetzen, baina guri bost! Urte gutxian, atzerritik etorritako pelikuletan amestutako lilurak gurean zeuden: antzerki alternatiboa, rock & rolla, kantautoreak, paradisu artifizialak, liburu debekatuak, manifestazioak eta alajaina: hauteskundeak ere bai. Inguratzen gintuen letra-zopa zorabiatzeko modukoa zen. Egutero agertzen zen pintadaren bat edo kartelen bat alderdi berri batek sinatuta. Jabetzen ginenerako bazen beste zatiketa bat, alderdiaren kinta-esentzia aldarrikatuz.

Izan ere, garai mugikor haietan ez zen arrotza izaten buruzagien aurpegia siglaz aldatuz ikustea. Euskadiko Ezkerrako hasierako mitin batean, esaterako, Periko Solabarriaren eta Rosa Olivaresen hitzaldi sutsuak entzuteko aukera izan genuen. Handik gutxira, bilerak, karteladak eta pankartak eguneroko behar bihurtu ziren, gaztetan bakarrik eskaintzen den eskuzabaltasunez.


ROBERTO
MOSO

ADARRAREN PUNTAN

GORRAK ETA BATURROAK

Gaizka Soldevilla idatzitako liburuaren azala. :: e. c.

Trantsizioko lehenengo urteak zeharkako ekimenenak ziren. Gureak onenak ziren, nola ez, baina gero hor zeuden ikasleen asanbladak, Lemoizen aurkako manifestaldiak edo auzo elkarrekin, gainontzeko militanteekin moldatzeko. Etsai komunaren kontra dena zen errazago. Baina bozketa bozketa bakoitzaren indarrak agerian geratu ziren. Ezker abertzalean Herri Batasunak eskuratu zuen tartaren zatirik handiena. Bere mezua ezin garbiagoa zen: Espainiako demo-



krazia gezur hutsa da eta Euskal Herrian ez da trantsizioko izan. Gerran gaude eta hau bukatzeko era bakarra autode-terminazioa bermatuko duen negoziatioa izango da. Bitartean Euskadiko Ezkerrak Gernikako estatutua babestu ez ezik, ETA (pm)ren desegitea bultzatzen zuen. Kalean 'Briann Bizi' filmean horren fin islatzen diren egoerak gurean ere gertatu ziren:

- Gu gara Juduen Batasuna, zeintzuk dira gure etsaiek?
- Erromatarrak, jakina.
- Ez memelo hori, Juduen Herri Frontekoak dira!

Guretzat haiek 'baturroak' ziren eta haientzat gu 'gorrak'. Haien goitizena berez azaltzen da. Gurearen azalpena siglatan datza (E.E.) eta norbaitek aurpegiatzen zidana: «Herriaren oihua entzun nahi ez duzelako». Salbuespenak salbuespen, denak ginen oso gazteak eta guztiz trebatugabeak. Politikan esperientzien bila sartzen ginen eta praktikan teoriaraino baino askoz interesatuago geunden. Denboraren poderioz sorburuko Euskadiko Ezkerra desagertu zen, baina ez gure gizartearen hark zuen esparrua. Oraingo Ezker Abertzalea hainbat instituziotan dago bortxakeria alde-dera utzita. Badirudi, aldiz, batzuek nahiago luketela hura iraganera itzultzea (bai, Otegi-ekin gertatu denaz ari naiz).